



# taxi kitto!

**Aisialdia  
eta kirola  
bat eginik**





Euskara Elkarte

### Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkarte  
Urkizu, 11 - solairuartera.  
20600 Eibar  
Tel: 943 206776.

### Erredakzio kontseilua

Maidar Aranberri,  
Ana Aizpurua,  
Ekhi Belar eta  
Eibarko ikastetxeak.

### Administrazioa

Marisol Uriarte.

### Erredakzioa

Maidar Aranberri eta  
Ekhi Belar.

### Maketazioa

Ana Aizpurua.

### Azaleko argazkia

Ekhi Belar

### Copyright-a

Txikitto!

### Lege-gordailua

SS-1111/96



Gipuzkoako Foru Aldundia



- **Nora doa otsoa  
oporretan?**

Auuuuuuuustraliara!!

- **Zein da dragoien joku  
hoberena?**

Dragon ball.

- **Zelan esaten da  
"medikua" txineraz?**

Osa Kidetza!!

- **Zer esaten dio harkaitz  
batek beste bati?**

Zein gogorra den  
bizitza!!

- **Nola deitzen dira letra gehien dituzten txoriak?**

Abe zedarioak!

- **Ba al dakizu zein den belarra gustatzen ez zaion  
belarjale bakarra?**

Ardia! Jaten duenean "Beeeeee..." esaten duelako.

- **Ba al dakizu zein fruta erabiltzen den guda batean?  
Granada!!**

- **Ba al dakizu gehien agintzen duen fruta zein den?  
Mandarina!!**



Soldadu batek galdetzen dio  
beste bati:

- Zertan ari zara?

- Hemen, emazteari gutuna  
idazten.

- Eta zergatik idazten duzu hain  
poliki?

- Nire emazteak ez dakielako  
azkar irakurtzen.



Dendariak  
Jaimitori:

- Zertan ari  
zara lurrean,  
Jaimito?

- Prezio  
baxuenak bilatzen!!





● Ume batek 3 kilo pisatzen badu eta txori batek 3 kilo pisatzen badu, ba al dakizue zeinek pisatzen duen gehiago? Ba... txoriak, 3 kilo eta piku pisatzen duelako!!!



● - Zer esaten du atun gorri batek 6. pisutik salto egiten duen bitartean?  
- Aaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaa  
aaaaaaaaa tun!!!



● - Nola esaten da "ispilua" japonieraz?  
- Hemenioni.



- Zer esaten dio aterki-ontzi batek besteari?  
- A zelako euria egiten duen hemen!!



● Lapur batek dirua lapurtu eta ertzaina atzetik segika doa. Orduan komentu batean sartzen da eta moja baten jantzia janzten du. Ertzainak ilaran jartzeko esaten die, izena esateko eta gonak altxatu behar dituztela. Horrela hasten dira gonak altxatzen eta izenak esaten:  
- Sor Maria!  
- Sor Isabel!  
- Sor Natalia!  
- Sor Manuela!  
- SOR PRESAA!!




# Denborapasak




## KOLOREZTATZEN

- 1.
- 2.
- 3.
- 4.
- 5.
- 6.
- 7.
- 8.
- 9.






## ASMAKIZUNAK




Zer jaten du lehoiak?



Zer jan duzu gaur?

## LABIRINTOA




# Denborapasak



## 7 desberdintasun



Zenbat triangelu daude?



## Gurutzegrama

K	Z	M	H	O	T	X	E	B
A	H	O	L	E	H	O	I	A
L	S	T	D	A	X	U	T	M
K	B	X	H	E	O	A	U	N
V	A	I	X	L	S	T	S	T
L	B	L	Z	A	R	I	O	X
A	O	A	A	K	O	G	Z	E
G	T	G	O	A	L	R	R	R
A	O	B	R	R	V	E	E	R
I	I	U	S	T	G	A	T	I
L	A	S	E	E	B	O	O	A
V	A	H	J	L	U	M	Z	H
A	S	D	O	A	B	D	X	D

- BIZIKLETA
- TXERRIA
- HOINA
- MOTXILA
- KARTELA
- TIGREA
- KALEA
- LEHOIA
- BOTOIA
- BEHIA
- KALKULAGAILUA





Marmokek ez dute garunik, bihotzik, hezurrik edo arnas sistemarik. Urez eta nerbioez bakarrik daude eginda.



Igelek bi modutan hartzen dute arnasa: larruazalaren bidez eta biriketatik.



Marrazo baleak 4.500 hortz ditu.



Nagi batek hilabete beharko luke 1,6 km egiteko.



Tximeletek zapore-hartzaileak dituzte hanketan.



Errauskineren zapatak ez ziren kristalezkoak, urtxintxa-ilezkoak baizik. Frantsetik egindako itzulpen txarrak eragin du nahastea.



Ikasten duzun bitartean txokolatea jateak informazioa erraz gordetzen lagunduko dio garunari.



Barraskilo baten begia mozten baduzu, berriz haziko zaio.



Musker batzuek beren isatsa jaten dute kaltzioa lortzeko.



Fruitu lehor eskukada ezin hobea da energiak berritu eta muskuluak elikatzeko.

# Lehiaketa

Ikasturte honetan, zorionez, normaltasunez egin eta banatu ahalko dugu Txikitto! hilabetekari hau. Hainbat hilabetez ezin izan dugu lehiaketarik antolatu, baina oraingoan indartsu gatoz berriro, eta zuen erantzunak jasotzen desiatzen, jakina!  
Orri honetan duzue hilabete honetako denborapasa-lehiaketa. Bete ezazue eta bidali edo ekarri ... eta kitto!-ra goian jartzen duen egunerako. Zorte on denoi!

## 7 desberdintasunak



Bidali erantzunak **otsailak 12** baino lehen  
...eta kitto! Euskara Elkartea- Urkizu 11 . Eibar

Izen-abizenak.....

Adina..... Tel. ....



# Eskola Kirola bueltan da

Urtarrileko bigarren astean Eusko Jaurlaritzak baimena eman ondoren, herriko ikastetxeetako umeak Eskola Kirola egiten hasi ziren berriz hilaren 18an. Hainbat hilabetez kirola egin barik egon ondoren, bada zerbait. Hala ere, oraindik ez da beti ezagutu izan dugun jarduera izango.

Hasteko, ez da asteburuetako lehiarik izango eta aste barruko entrenamendu saioak bakarrik egin ahal izango dira. Beraz, lehiarik ez dagoenez, ez da kirol jakin bat landuko. “Umeek kirola egitea da gure asmoa, mugimenduan egotea”, Eneko Garcia Eibarko Eskola Kirolaren arduradunak esan digunaren arabera.

Umeek kontaktu bariko kirola egingo dute, maskarekin eta sei laguneko multzoetan. Sarreran tenperatura hartuko zaie eta gel hidroalkoholikoa izango dute eskura. Gainera, ezin izango dira beste ikastetxe batzuetako umeekin nahastu eta, ondorioz, gune ezberdinetan egin beharko dute kirola. “Espazio gehiago bilatu behar izan ditugu neurriak betetzeko eta taldeak ikastetxeetan, Ipuruako kiroldegian eta Mogel Isasin banatzen dira”, esan digu Enekok.

Gauzak horrela daude gaur gaurkoz, baina egoerak okerrera egiten badu, zer? “Hori da txarrena, gaur martxan gabiltzala, baina bihar nork daki”, Garciaeren ustez. “Herri bat semaforo



gorrian jartzen bada, bertan ezin izango da Eskola Kirolik egin”.

Ezjakintasun egoera izanik, aurtan ume gutxiagok eman du izena Eskola Kirolean, “baina apuntatu direnak oso gustora dabilta”, arduradunaren iritziz.

“Umeak eta gurasoak Eskola Kirola hasteko gogoz zeuden, umeek beharrezkoa dutelako aisialdia eta kirola egitea”.

Dena dela, norbaitek oraindik izena eman nahi badu, matrikula egiteko aukera dago oraindik.



# San Andresetik Itziora



Azkeneko urtebetean denon ahotan egon den eta dagoen hitz bat aukeratzeko galdetzen badizuegu... Erantzuna erraza, ezta? COVID-19ak bazterrak astindu eta nahastu dizkigu, eta egoera berri batera egokitu behar izan dugu arlo askotan. Ikastetxeek ere aldaketak jasan dituzte: ikasleak ezin nahastu, leihoak zabalik eduki beharra, segurtasun- eta higiene-neurriak, distantzia... Hain zuzen ere, azkeneko horiek betetzeko zailtasunak zituztela eta, San Andres ikastetxeko 5. eta 6. mailako ikasleak eskolaz aldatu dira. Zortzi urtez euren eskola izan dena atzean utzi eta Itziora joan dira. Hasiera batean aldaketak beldurra ematen bazien ere, orain pozarren daude ikastetxe berrian.

## ANDONI OLKOZ, 10 URTE



Nire ama Guraso Elkarteko kidea da eta berak esan zidan lehen aldiz San Andresetik Itziora aldatuko zigutela ziur asko. Zer sentitu nuen? Ba hasiera batean triste jarri nintzen, ze ni beti egon naiz San Andresen, txikitatik, 2 urte nituenetik, eta arraroa egiten zitzaidan betiko eskola utzi eta Itziora joatea. Beldur pixka bat sentitu nuen hona etorri ginen lehenengo egunean, eskola berria zen, ez nuen ezagutzen... Baina espero nuena baino hobeto joan da dena, ze gainera betiko lagunekin nago hemen ere! Itziotik gehien gustatzen zaidana jangela da, bertan egiten dute bazkaria eta oso goxoa dago! Gutxien gustatzen zaidana beheko patioa da, grafiti asko daude eta iluna da. Baina oso leku polita da Itzio eta oso gustora nago. Gainera, handiagoa denez eta ikasle gutxiago gaudenez, distantzia errazago zaintzen dugu.

## JUNE SUKIA, 10 URTE



Itziora etorri behar genuela jakin nuenean pena hartu nuen eta urduri ere jarri nintzen pixkat bat, baina hona etortzean dena pasatu zitzaidan. San Andres baino handiagoa da eta desberdina. Grafiti asko dago, eta nahiz eta batzuk gustatu ez, beste batzuk oso koloretsuak eta politak dira. Aldaketa uste nuena baino errazagoa izan da, aldaketa onerako izan da. Lau gela gaudu ikastetxe osoan eta, pandemian gaudela kontuan hartuta, hobeto zaindu dezakegu distantzia; San Andresen pilatuago geunden. Itziotik gehien gustatzen zaidana gelak eta aire libreko patioak dira. Etxetik gertuago daukat eta jangelako bazkaria oso goxoa da. Baina nire amaxoren falta igartzen dut, ze berak San Andreseko jangelan egiten du lan, eta lehen egunero ikusten nuen.

**MALEN POVES,  
10 URTE**



Pena hartu nuen Itziora etorri behar genuela jakin nuenean. Txiki-txikitatik geunden San Andresen, 2 urterekin hasi ginen... Baina aldaketa hoberako izango zenez lasaitu egin nintzen. Uste nuena baino hobea izan da aldaketa. Leku asko dago, 5. eta 6. mailakoak bakarrik gaude... Alde txarren bat esatekotan esango nuke orain nire etxetik urrutiago gelditzen zaidala eskola, baina bidean lagunekin gelditzen naiz eta elkarrekin etortzen gara. Bistak zoragarriak dira; lehen San Andresen ez genuen halakorik, eta orain mendiak eta Eibar osoa ikusten dugu leihotik! Maskararekin ere pixkanaka ohitzen ari naiz; oraindik irakasleak batzuetan gogoratu egin behar die batzuei musukoa ondo jarri behar dutela baina nahiko ondo daramagu denok.

**IZARO BILBAO,  
10 URTE**



Koronabirusarengatik konfinatuta nengoenean ez nuen espero 5. mailan eskolan hastea. San Andresen ez dago leku askorik segurtasun-neurriak zaintzeko eta 5. eta 6. mailak Itziora etortzea erabaki zuten; horrela, San Andres eskolako txikiei espazio gehiago lagako genien. Guk Itzion leku asko daukagu. Hasiera batean urduri xamar sentitu nintzen aldaketarengatik baina orain oso gustora nago. Itziotik gehien gustatzen zaidana da bazkaria jangelan bertan egiten dutela eta leku gehiago dugula, eta gutxien grafitiak eta jolastokiak, lehengoak baino txikiagoak dira-eta. San Andresen gelditu diren laguntxoak eta anaia ez ditut horrenbeste ikusten orain eta hori da igual alderik txarrena.

**ANDER MILIKUA,  
10 URTE**



Ondo iruditzen zait San Andresetik Itziora aldatzeko erabakia. Normala da, lehen ez genuen denontzat lekurik, txiki gelditu zen San Andres segurtasun-neurriak ondo zaindu ahal izateko, eta orain hemen hobeto gaude. Gehien gustatzen zaidana da patioa, eta gimnasioa ere bai. Ez da lehengoa baino handiagoa baina hobeto dago nire ustez. Ez zaizkit gustatzen komunak, zaharrak eta ilunak dira. Eta San Andresetik zeren falta somatzen dudan gehien? Eskola kanpoan dagoen parkea, askotan egoten ginen han. Adibidez eskola ordua baino lehenago ailegatzten ginenean parkera joaten ginan jolastera, eta orain ez dugu horrelakorik. Jangelako jaki batzuk orain gehiago gustatzen zaizkit.

**OIHAN MARCOS,  
11 URTE**



Andereñok esan zigunean Itziora etorri behar genuela ondo hartu nuen, konturatu nintzelako leku gehiago izango genuela eta bi kurtsorako besterik ez zela izango. Eskola osoa dugu orain guretako. Lehendik ez nuen ezagutzen Itzio eta gogoia sartu zitzaidan eskola berri bat ezagutzeko. Lehenengo egunean sartu ginenean mahaia eta aulkiak pixkat zaharrak iruditu zitzaizkidan, gainera sillek zarata arraroa egiten zuten... Baina orain ondo. Komunak iruditzen zaizkit pixkat ilunak... eta zaharrak... San Andresekoak berriagoak ziren. Gimnasioa ere gehiago gustatzen zitzaidan San Andresekoa, luzeagoa da eta leku gehiago genuen, baina hau ere ez dago hain gaizki. Gehien gustatzen zaidana bistak dira, naturaz inguratuta gaude eta oso bista politak ditugu Itziotik. Leku aldetik ere hobeto gaude orain, patioa edo jangelara mugitzerakoan igartzen da ikasle gutxiago gaudela.





## sukal-saltsan

# Arrautza, barrukoz kanpora

### OSAGIAK :

- Arrautza bat edo bi
- Zelo
- Galtzerdi bat
- Eltze bat urarekin



### Nola egin:

- 1.- Bildu arrautza osoa zelos. Hartu galtzerdia eta sartu arrautza galtzerdiaren erdiraino, gutxi gorabehera. Kiribildu galtzerdiaren muturrak.
- 2.- Heldu galtzerdia bi muturretatik eta birarazi arrautza bere ardatzaren inguruan. Jardun horrela, gutxienez 5 minutuz.
- 3.- Zelo kendu gabe egosi arrautza eltzean, tarteka, eragin.
- 4.- Itzali sua 10 minutu igarotakoan. Utzi hozten, eta arrautzari azala kentzen diozunean, barrukoz kanpora aurkituko duzu: gorringoa kanpotik eta zuringoa barruan!




## Kokozko bonboiak

Arrautza pare bat, birrindutako kokoa eta laberako papera, besterik ez duzue behar. Plater edo bol batean bi arrautzak irabiatu eta 150 gramoko koko birrindua bota, eta osagaiak ondo nahastu. Ondoren, eskuekin edota bolak egiteko tresnaz baliatuz, nahasketaren zatiak hartu eta biribil txikiak egin. Jarri bolatxoak laberako paperaren gainean. Labean sartu (180°) 15-20 minutuz. Hozten utzi eta aupa! Horra hor kokozko bonboi liluragarriak!



Horrelako gehiago: [www.esperimentuak.eus](http://www.esperimentuak.eus)



## Arrautza bat botilan nola sartu

Sar al daiteke arrautza bat botila baten barruan, arrautza apurtu gabe? Galeper arrautza bat bada bai, jakina! Baina oilo arrautza bada?

### MATERIALA:

- Oilo arrautza bat
- Kristalezko botila bat
- Paper zerrenda mehe bat
- Olio tanta bat (begetala)
- Metxero bat

### Nola egin:

1. Egosi arrautza eta zuritu. Igurtzi botilaren ahoa olio begetalez.
2. Piztu paper zerrenda eta bota botilaren hondora.
3. Jarri arrautza botilaren ahoan. Papera erretzen denean, harri eta zur geldituko zara! Arrautza bere kasa sartuko da barrura, txintxo-txintxo!



## Piperrautsa ihesi!

Bete plater sakona urez eta bota piperrauts beltz pixkat bat. Sartu atzamarra plateraren erdian; ez da ezer gertatzen. Orain, jarri xaboi likido pixka bat atzamarrean eta sartu berehala platerean. Hara! Begira nola doan piperrautsa gure atzamarrengandik ihesi!



### Nola liteke?

Suak botila barneko oxigenoa erreko du, eta halako aire arrarotu bat sortuko da. Barruko presio atmosferiko apalaren eta kanpoko presio atmosferiko arruntaren arteko diferentziaren eraginez, arrautza barrura sartuko da. Elastikotasunari esker sartuko da botilaren ahotik barrura.





# zer irakurri

Juan San Martin Liburutegia



## Ene Itsugidari, Ene Kapitain 6 urtetik aurrera

Eskolara bidean, aitak eta biok argi-itzalen -eta soinuen- oihan batean barrena egiten dugu aurrera. Piztia-autoak asmatzera jolasten gara: - Hori Panda bat da. -Entzun! Kakalardo bat! -Jaguar bat! Jaguar bat! -Peugeoten lehoia entzun dudala uste dut... Emozioa eta edertasuna, aita baten eta haren alabaren arteko maitasun sakona, eta ikusteko mugetatik harago ikusteko gaitasuna, horiek guztiak agertzen dira liburu honetan.



## Valerium Tremens eta traganarruak 8 urtetik aurrera

Hondartzan hilotz bat azaldu denetik, herriko marinel zaharrek itsasoko izaki ahaztuei buruzko kondairak baino ez dituzte guztiek ahoan. Eskolan, ordea, Valerium Tremens amerikar etorri berria da denen hizketagai. Sara, Martin eta hirurek altxorren bila jolasean Azken Portuan barneratzen direnean, arriskuan ikusiko dute euren burua. Traganarruei ihesi, ustekabeko sekretuak topatuko dituzte.



## Maddiren amona influenzerra 10 urtetik aurrera

Covid19 malapartatuak mundo osoa astindu du. Maddiren gurasoak Maldivar irletan harrapatu ditu oporretan, eta etxera itzuli ezinik daude; ondorioz, Maddik amonaren etxean pasatu beharko du itxialdia. Hasiera batean aspergarria zirudien plana sorpresaz eta abenturaz beterikoa izango da. Batetik, Maddik Basakabiko lagunekin bideo-deiak egiteko aukera izango du, eta, bestetik, sare sozialei esker amonak bere gaztetako mutil-lagun batekin topo egingo du. Bestelakorik gerta al daiteke? Ba bai! Ustekabean, Maddiren amona influenzer bihurtuko da.

## “Borobil indiarra” (Urkizu)

- 1- Parte-hartzaileek zirkulu bat osatzen dute eta hankak irekitzen dituzte, bata bestearen alboan jarriz
- 2- Baloia bat erdian jartzen da eta parte-hartzaileek eskuarekin jo behar dute, besteen hanka tartetik pasatzeko.
- 3- Baloia norbaiten hanken artetik pasatzen bada, honek esku bat bizkarrera eraman eta horrela jarraitu beharko du.
- 4- Baloia berriz pasatzen bada bere hanken artetik, buelta eman eta bizkarra emanda jokatu beharko du.
- 5- Hirugarren aldiz baloia hanken artetik pasatzen bada, kanporatua izango da.

### ARAUAK

- Baloia ezin da gelditu.
- Baloia ezin da hartu.
- Baloia lurretik joan behar da.

## jolastokixan jolasian



### BIDEOA:

<https://etakitto.eus/txikitto/urkizuko-jolasa.html>





ipuina

## Familiako bazkaria

Bazen behin familia bat Gabonetako bazkaria familian prestatu nahi zuena.

Familiako kide guztiak oso pozik zeuden opariak jasoko zituztelako eta familia ihusiko zutelako. Horrela, atzerrian bizi

ziren osaba eta izaba etorri behar ziren hegazkinez eta Madrilen bizi ziren semeak autoz etorri behar ziren. Egun batzuk lehenago, bidaiak prestatzen hasi ziren. Gabonetarako dena prest edukitzeko. Opariak erosi zituzten, jatekoa erosi zuten eta Gabonak prestatzeko egiten diren zeregin guztiak egin zituzten. Baina koronabirusa zegoen urte hartan eta familiako aiton-amonak koronabirusarekin kutsatzeko beldurra zuten, jende oso gaixotu eta hil egin zelako, eta horregatik, ez zehiten zer egin. Azkenean, bideo-deia egitea bururatu zitzairen eta opariak eta janaria beste egun baterako gorde zituzten. Familiako bilera bat egin zutenean dena



komponentzeko, aiton-amonak ez ziren konektatu, bideo-deiak egiten ez zehitelako. Auzokideei laguntza eskatu zieten, auzokideek lagundu zieten baina batek koronabirusa zeukan. Aiton-amonak pozik egin zuten familiarekin bilera,

baina hurrengo egunean gaizki sentitu ziren koronabirusak kutsatu zituen-eta. Ospitalean gelditu ziren gaua pasatzeko, baina birusarekin jarraitu zuten. Familia osoa oso kezkatuta zegoen aiton-amonak gaizki zeudelako.

Azkenean, hilabete eta gero, ospitaletik irten ziren sendatuta eta handik aurrera kontu handiagoz ilili ziren. Hurrengo urteko Gabonetarako familia osak espero zuen koronabirusa desagertuta egongo zela eta berriz elkartuko zela familia osoa, lehen bezala, opariak jaso, elkarrekin bazkaldu eta familiarekin ondo pasatzeko.

Alex Barrenetxea-Arando



zu margolari